

KARTZINOMA ADRENOKORTIKALAREN ISTORIA



Liburuxka hezitzaile hau ESTEVEk eta Hannah Franjouk diseinatu dute, ENS@T-rekin, Let's Cure ACC-rekin, gaixoekin eta haien familiekin lankidetzan. Eskerrak eman nahi dizkiegu kartzinoma adrenokortikala duten gaixoei eta haien familiei, haien ideia eta denbora baliotsuarengatik.

Irakurleak ez ditu tratamenduak hartu behar, edo aholkuei jarraitu behar, aurretik osasun profesional bati galdetu gabe.



- ENS@T Tumor Adrenalen Ikerketarako Europako Sarea da.
<https://ensat.org/>
- ESTEVE arlo terapeutiko desberdinetan tratamenduak eskaintzen dituen konpainia farmazeutikoa da.
<https://www.esteve.com/>
- Let's Cure ACC gaixoen defentsarako nazioarteko talde bat da, zeina kartzinoma adrenalari soilik eskainia.
<https://lets cureacc.com/>

KARTZINOMA ADRENOKORTIKALAREN ISTORIA

Ilustratzailea: Hannah Franjou



1. GURUIN ADRENALA, FABRIKA BEREZIA




Zure bizkaraldearen altuera erdian, bi giltzurrun dituzu. Giltzurrun bat eskuinean eta bestea ezkerrean daude.


Giltzurrunek odola garbitu eta gernua sortzen dute.

Giltzurrun bakoitzak bere fabrika txikitxo du gainean, guriin adrenal deritzona. Bi giltzurrun dituzenez, bi guriin adrenal dituzu.

Guriin adrenal



Giltzurruna



Guruin adrenalaren kanpoaldeko zelula multzo berezi batek hormona oso garrantzitsu bat isurtzen du...

Kortisola!



Hormonak zure gorputzari zer egin esaten dioten mezu zehatzak bezalakoak dira.

Kortisola estresa kudeatzen laguntzen dizun hormona da, energia ematen dizu (esnatzen zarenean gehienbat), eta gorputza babesten laguntzen dizu gaixo edo zaurituta zaudenean.



Bihar matematikako azterketa bat dagoela dio nagusiak

Esnatu! Denak martxan!



Zure buruan, guruin adrenalak elkarrekin lan egiten duten bi nagusi ditu: **Hipotalamoa** eta **Guruin pituitarioa**.

Hipotalamoa

Guruin pituitarioa



Biak elkarrekin komunikatzen dira, eta, aldiro, zure guruin adrenalak aztertzen dute.

Mezu berri bat duzu.

GURUIN
PITUITARIOA

Kortisola behar denean, guruin pituitarioak mezu bat bidaltzen dio gorputzari, kortisola aska dezan.

GURUIN
PITUITARIOA


2. ARAZO BAT FABRIKAN



Normalean, guruin adrenaleko zelulek zure gorputza osasuntsu mantentzeko behar adina kortisol ekoizten dute.



Baina, batzuetan, zelula gaixotzen da...




... eta zelula gaixo batek beste zelula batzuk gaixotu ditzake. Elkarrekin, zelula gaixo horiek 'tumore' deritzen multzo bat osatzen dute.







Beste batzuetan, baliteke tumoreak hormonarik ez sortzea, eta isilean gelditzea.



Baina hormonak sortzen ez dituenean ere, tumorea azkar haz daiteke eta zure gorputzean zehar sakabanatzen saia daiteke, gelditzen ez bazaio.



3. ZURE MEDIKUA DATOR ZU SALBATZERA!



Kartzinoma adrenokortikala aurkitzeko (tumorea), mediku espezializatuek proba asko egitea eskatuko dizute...



... eta, agian, argazki bereziak aterako dizkizute, gorputzaren barrualdea ikusteko!



Tratamendu berezi bat emango dizute tumorearen aurka borroka dezazun!



Hura kentzeko, baliteke kirurgiarekin kentzea, ospitalean zaudela. Hori egiten duten medikuei zirujau esaten zaie.



Zure familiarekin eta
medikuekin batera,
talde ederra osatzen
duzue guztiok!




NIRE OHARRAK


Burura etortzen zaizkizun galdera guztiak idatz ditzakezu hemen, edo gogoratu nahi dituzun gauza garrantzitsuak.

Hurrengoan medikuarengana zoazenean,
hari erakutsi ahal izango dizkiozu!





NIRE MARRAZKIAK



Kaixo! Nire izena Koko da. Zatoz nirekin kartzinoma adrenokortikalari buruz ikastera. Liburuxka hau irekitzen baduzu, gauza polit mordoak aurkituko duzue!



ESTEVE

